

Nire ERASMUS esperientzia Brasoven, Errumania

9 hilabete igaro ditut Brasoven ERASMUS gisa, eta nire esperientzia atzerrira ikastera joan nahi dutenentzat lagungarria izango delakoan idazten dut dokumentu hau.

Brasoven klaseak urriaren hasieran hasten dira eta ikasle residentzia ez dute ordurarte irekitzen. Horregatik irailaren bukaeran joan nintzen bertara. Bi aireportu nagusi daude Errumanian, *Cluj-Napocako* eta *Bucaresteko*. *Bucarestera* joan nintzen ni, Blue Air konpainiarekin. Bertatik tren geltoki nagusira joateko autobus bat dago 15 minutuko maitzasunarekin pasatzen dena. Taxia ere merke irtetzen da, 20 lei gutxi gorabehera (taxistak atzerritarrok engainatzan saiatzen dira). Geltokia “Gara de nord” deitzen da. Tren dexente daude *Brasoveraino*. Ez dira garestiak, baina oso motelak dira. Konpainia pribatuak 25 Lei (6 € baino gutxiago) ordaindu beharra dago, eta publikoa 50 Lei (11 bat €). Biek hiru ordu eta erdi ematen dute. Hona hemen trenen ordutegia ikusteko web-orrialdea:

<http://www.cfrcalatori.ro/164>

Bestalde, taxista bat badago 50 €-gatik (ez Lei) *Bucaresteko* aireportutik *Brasoveraino* eraman zaitzakena. Lau lagun bilduz gero merezi du, merke irtetzen delako eta askoz eroosoagoa delako. Horatiu du izena. Ondo hitz egiten du ingeleraz. Hau da bere zenbakia:

Horatiu taxista: +40742203992

Bizitzeko tokiarri dagokionez, nik lehenengo residentziara joatea gomendatuko nuke, eta ondoren han ezagututako jendearekin pisu bat alokatzea.

Bi residentzia daude bertan, “Colina” eta “Memo”. Unibertsitateak bietako batera bidaltzen zaitu eta berez ez duzu aldatzeko aukerarik. Bietan onena Memo residentzia da, hala ere ez da oso erosoa. Gelak ez dira oso handiak, eta bi lagunek egin partekatu behar dute. Gela bakoitzean litera bat, armairu bat, balda batzuk eta kanila bat dago. Pisu bakoitzean komun bakarra dago, 4 dutxekin eta arropa garbigailu batekin. Ez dago sukalderik, ezta biltzeko gune amankomunik ere. Hilabetean 60 € ordaintzen da.

Pisu arruntengatik aldiz, norbaitekin partekatuz gero 100 bat € ordaindu behar izaten da, eta gastuekin 120 bat €tan gelditzen da normalenean.

Unibertsitate kontuan desastre bat da dena. Euskal Herrian learning agreement-a amaitu ondoren, lehendabiziko astean nire errumaniar koordinatzailearekin hitz egitera joan nintzen eta nire irakasgaiak erakutsi nizkionean gehienak ezin nituela egin esan zidan (urretik email bidez baitz esan zidan arren), batzuk ez ziren esistitzen, beste batzuk urte hartan ez ziren ematen irakasle faltagatik, eta beste batzuk ingereraz ez zeudela esan zidan.

Urte osoan zehar hainbat aldiz aldatu behar izan nuen learning agreement-a eta denbora asko eman nuen horretan. Izen ere oso zaila da irakasleekin eta koordinatzailearkin kontaktatzea, ez baitituzte harrera orduak eta emailei erantzutea asko kostatzen zaie. Egin behar dena “plasta” bat izatea da, egunean bi edo hiru email bidali kasu egin dezaten edo fakultateko idazkaritzara joan eta irakasleen telefono zenbaki pertsonalak eskatzea (gehienetan ematen dute).

Azkanean irakasgai asko errumanieraz egiten amaitu nuen, bestela learning agreement-a amaitzea ezinezkoa litzatekelako. Uste baino errezagoko suertatu zitzaidan, eta errumaniera zerbait ikasteko baliagarria izan zen.

Baina dena ez da txarra, normalenean erasmusentzat nahiko erreza izaten da irakasgaiak gainditzea, exigentzia ez da oso handia. Gainera, Erasmusak unibertsitatetik kanpo irakasten dizu gehien, batez ere ikuspegia eta mentalitatea zabaltzen baitizu. Eta horretarako Errumania oso herrialde aproposa da. Prezioak oso merkeak dira eta horrek bidaiatzea errezen dizu. Gainera autopista oso zabalduta dago, eta kilometro asko egin ditzakezu egunean honela, jende asko ezagutzen duzularik. Jendea oso jatorra da generalean, batez ere herri txikietan (*Maramures* zonaldea gomendatzen dut, iparraldean). Jendeak atzerritarrok oso gustuko ditu eta erreza da jatera edo lo egitera haien etxera gonbidatzen zaituen jendea aurkitzea.

Hortaz, ERASMUSean joateko edozein herrialde egokia den arren, Errumania oso gomendagarria iruditzen zait.

Espero dut nire esperientzia lagungarria izan izana.

Mi experiencia ERASMUS en Brasov, Rumanía

He estado 9 meses en *Brasov* como ERASMUS, y escribo este documento con la esperanza de que será útil para los estudiantes que quieran ir al extranjero.

En *Brasov* las clases comienzan a principios de octubre y la residencia de estudiantes no la abren hasta entonces. Por esa razón fui a finales de septiembre. Hay dos aeropuertos principales en Rumanía, el de *Cluj-Napoca* y el de *Bucarest*. Yo fui a *Bucarest*, con la compañía Blue Air. Desde allí hay un autobús que sale cada 15 minutos hacia la estación principal de trenes. Coger un taxi también sale barato, unos 20 Lei más o menos (los taxistas tratan de engañar a los extranjeros). La estación se llama "Gara de nord". Hay bastantes trenes a *Brasov*. No son caros, pero sí muy lentos. En la compañía privada el billete cuesta 25 Lei (menos de 6 €) y en la pública 50 Lei (unos 11 €). Los dos tardan tres horas y media. Esta es la página web donde se puede ver el horario de trenes:

<http://www.cfrcalatori.ro/164>

Por otro lado, existe un taxista que por 50 € (no Lei) te lleva desde el mismo aeropuerto de *Bucarest* a *Brasov*. Esto sale barato si os juntáis 4 personas y es mucho más cómodo. Se llama Horatiu y habla buen inglés. Este es su número de teléfono:

Horatiu taxista: +40742203992

En cuanto al alojamiento, recomiendo ir primero a la residencia para conocer gente y luego mudarse a un piso alquilado.

Hay dos residencias estudiantiles en *Brasov*, "Colina" y "Memo". La universidad te asigna una de las dos y en principio no tienes opción de cambiar. La mejor de las dos es la residencia Memo, aunque tampoco es muy cómoda. Las habitaciones no son muy grandes y en cada una de ellas viven dos estudiantes. En cada habitación hay una litera, un armario, unas baldas y un lavabo. En cada piso hay un solo baño que dispone de cuatro duchas y una lavadora. No hay cocina, ni una sola zona común donde estar un rato con los compañeros. Cuesta 60 € al mes.

Los pisos compartidos suelen costar unos 100 € al mes, a lo que hay que sumarle los gastos. Suele quedarse en unos 120 €.

En cuanto a la universidad, es un auténtico desastre. Después de haber terminado mi learning agreement en Euskal Herria, la primera semana fui a hablar con mi coordinadora rumana y cuando le enseñé la lista de mis asignaturas me comentó que la mayoría no las podía hacer (aunque antes me había dicho que sí vía email). Al parecer algunas no existían, otras no se daban ese año por falta de profesores y otras no se daban en inglés.

Durante todo el año tuve que cambiar el learning agreement varias veces y perdí mucho tiempo en eso. Es muy complicado contactar con los profesores y la coordinadora ya que no tienen horas de tutoría y les cuesta mucho responder a los emails. Lo que hay que hacer es ser un "plasta" y mandar dos o tres emails al día o ir a la secretaría de tu facultad y pedir el número de teléfono personal de la profesora o profesor (la mayoría de las veces lo facilitan).

Al final terminé haciendo varias asignaturas en rumano porque sino me era imposible terminar el learning agreement. Me fue más fácil de lo pensado y me sirvió para aprender un poco de rumano.

Pero no todo es malo, normalmente para los estudiantes erasmus suele ser bastante fácil aprobar las asignaturas, la exigencia no es muy grande. Además, la experiencia erasmus te enseña mucho más fuera de la universidad que dentro, sobre todo porque te abre la mente y el punto de vista de todo lo que te rodea. Para eso Rumanía es un país muy adecuado. Los precios son muy baratos y eso te facilita el viajar. Además el hacer autostop es muy común y puedes hacer muchos kilómetros al día así mientras conoces a muchísima gente. La gente es muy amable por lo general, sobre todo en la zona rural (recomiendo la zona de *Maramures*, en el norte). Les gusta mucho la gente extranjera y es fácil que te inviten a sus propias casas a comer o incluso a dormir.

En conclusión, aunque para ir de ERASMUS todos los países son adecuados, Rumanía me parece muy recomendable.

Espero que mi experiencia haya sido útil.